



# Guk abizena, zuk?

# Guk abizena, ZUK?

Euskal abizena modu ofizialean  
eta leku guztietan euskaraz  
idatzita izan nahi baduzu, hiru  
pausutan egin dezakezu, erraza da:



1. Erregistro zibilera edo bake  
epaitegira joan eta esan abizena  
euskal grafiaz ipini nahi duzula.

2. Han emango dizuten eskaera  
orria zure datuekin bete.

3. Agiri hauek eraman:

- Nortasun agiriaren fotokopia. Adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.
- Hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria. Epaitegian eskatzen da.
- Errolda agiria. Udaletxean eskatzen da, eta, adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.
- Familia liburuaren fotokopia. Ezkonduta bazaude edo seme-alabarik baduzu.
- Seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia. 16 urtetik gorako seme-alabak badituzu.